OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA
DATA 2020 AZA 06
ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA. 986

OÑATIKO UDALA

# ALKATE DEKRETUA

**Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:**

**Igeltsero Ofizial lanpostuari dagokion plaza hornitzeko deialdiari dagokion behin-behineko zerrenda onartzea,**

2020ko uztailaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

Laboralen plantillan hutsik dagoen C2 taldeko plaza baten deialdia eta oinarriak onartzea: (Igeltsero Ofizial lanpostuari atxikia). (2020/8/12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 152. zenbakia).

Amaitu da, jada, aipatutako hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea, eta legediak ematen dizkidan eskumenak erabilita,

ERABAKI DUT

**Lehena.** Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea, Igeltsero Ofizial lanpostuari dagokion plaza hornitzeko deialdiari dagokiona.

**Onartuak**
GARCIA REY, VICTOR
LAZCANOITURBURU MAQUIBAR, UNAI
ARANA ELEZCANO, ARKAITZ

**Baztertuak**
ARRIOLA ALONSO, AITOR (1)
REGUEIRO LEON,ISMAEL (1)
FERNANDEZ MADINABEITIA, IOSU (1)
ARANGUREN SOROZABAL, JOXE (1)

(1) Eskatutako titulazioa ez akreditatzeagatik

**Bigarrena.** Zerrenda horiek udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian iragarriko dira; horien aurrean erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango da, Herri Administrazioetako Prozedura Administratibo Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68.1 artikuluan ezarritakoa betez. Behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira automatikoki, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik badago, berriz, beste ebazpen baten bitartez onetsiko dira behin betiko zerrendak, eta aipatutako moduan argitaratuko.

**Hirugarrena**. Deialdi honen hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzea. Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta hautagaiek errefusatu egin ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluak aplikatuko zaizkie.

Epaimahaiak aholkulariak biltzeko ahalmena izango du, eta euren eginkizun teknikoetara mugatuko da partaidetza, Euskal Funtzio Publikoko legearen 31.4 artikuluan jasota dagoen moduan.

**Epaimahaia**

Epaimahaiburu:
Andoni Beristain Eizagirre, ordezkoa, Unai Pinto Larrinaga.

Epaimahaikide:
Xabier Berridi Iriarte- Ordezkoa Iñaki Landa Azkoaga
Juan Antonio Gonzalez Sanchez- Arrasateko udaletik –ordezkoa, Mikel Korkostegi Ojanguren
Alberto Velasco Noguera- Legazpiko udaletik – ordezkoa, Miguel Angel Letamendi
Enrique López de Vallejo Garcia - Ivap-eko ordezkaria; ordezkoa José Ibañez Gutierrez.

Euskarako probarako: JAUREGIALZO ARREGI, SUSANA- Ivap-eko ordezkaria. Ordezkoa ETXEBARRIA ARIZMENDI, IRATXE

Idazkaria:
Oñatiko udaleko GGBB eta Antolakuntza Teknikaria, ordezkoa, Oñatiko Udaleko Idazkaria

**Laugarrena**. Oposizio-faseko ariketen daten berri Oñatiko Udaleko Iragarki-taulan nahiz www.onati.eus web-orrialdean emango da.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.**

**Oñatin, 2020ko azaroaren 5ean.**

OÑATIKO ALKATEGIA UDALA

**ALKATEAK**

**Izaro Elorza Arregi**